



Adarra berrogei egunez zuri-zuri, negu honetan

Aurtengo neguko eguraldiaren datu interesgarriak Andoaingo eta Urrietako eguraldi adituen eskutik / 3

Sahara gogoan, bertso saioa igandean

Hurria-Sahara elkarteak antolatuta, igande honetan puntako bertsolariak bilduko ditu Basterok: Mendiluze, Colina, Gaztelumendi, Agirre, Iguaran eta Muñoa / 9



Eskaintza bereziak Andoaingo dendetan, Salkinen eskutik ostiralean egun osoan zehar / 16

Sukaldaritza tailerra edota Irrisarriland parkera irteera, Andoaingo Gazte Lokalaren eskutik / 11

Haur eta gazteen aisialdia Aste Santuan, eskaintza zabala Urrietako Gaztelekuan / 7

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



Pentsiodunen egoera aztergai Andoaingo eta Urrietako Udal batzarraldietan, ostegun honetan / 14

EDITH PIAF: TAXIDERMIA de un GORRIÓN

Ozkar Galán

MARTXOAK 25

19:00, 8 €

SAROB EAG (URNIETA)

BERTAN BEHERA



Egunerokoa www.aiurri.eus webgunean



Martxoak 8



Elurtea



Kultura



Kirola

AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



Urnietako San Juan plaza, otsailaren 28ko elurtean. AIURRI

Negu langilea, aurtengoa

Asteartean bukatu zen aspaldiko negurik hezeena, otsaileko azken egunean elurte historikoa utzi zuena, baina jendeak uste duena baino samurragoa. Dagoeneko udaberriari sarturik gaude

Andoni Urbistondo URNIETA

Bukatu da 2017/2018ko negua. 'Eskerrak', esango dute askok, kaleko herritarren sentsazioa aspaldiko txarrena, gaiztoena, hotzena izan dela baita. Ohikoa ere bada, eguraldia goizeroko hizketagai bihurtu baitzen aspaldi. Igogailuan, kafetegian, lanean zigarroa erretzeko bost minutuko tartea hartzen dutenen artean... Gurasoak kexa dira: "Nahikoa da, ea bero pixka bat etortzen zaigun". Kirolariak ere: "Arrabolan ibiltzeaz nazkatuta nago!". "Ihartuta nago, eguzki minez", besteek. Neguak, baina, ezer gutxi eduki du berezitik, eta asko arruntetik. Bizi garen txokoan neguak hezeak eta euritsuak baitira.

Euria barra-barra egin du. Marka historiko batzuk gaintu ere bai. Urtarrila bereziki hezea izan zen, 25 euri egun.

Imanol Fernandez andoaindarrarena da datua: "768 litro jaso dira urtarriletik asteartera arte, 67 euri egun. Alegia, 3 egunetik bitan euria egin du. Iazko neguan, esaterako, 27 euri egun baino ez ziren izan". Eta euriak freskura ekartzen du, eguraldi

"768 LITRO JASO DIRA URTEKO LEHEN HIRU HILABETEKOAN"

IIMANOL FERNANDEZ. ANDOAIN

"NEGUAN 67 EGUNETAN EURIA EGIN DU. IAZKOAN, SOILIK 27 EGUNETAN"

IMANOL FERNANDEZ. ANDOAIN


grisa, iluna, etxerako modukoa. Eta jendea tristetu, kopetilun jarri. Baina gauza ezberdin bi dira euria eta negu gordina.

Joan den negua ez baita hotzagatik gogoratuko. Datu soil bat, konparatze aldera. Iaz, Urnietan, 14 egunetan jaitsi zen temperatura 0 gradutik behera. Negu honetan, erdia baino gutxiagotan, sei baino ez. Batez bestekoa 10-12 izotz egun izaten da. Izotz egunen aurpegi gozoa da, hotzaren ostean eguzkiak bazterrak goxatzen dituela, eta jakina, eguzkiak bestelako sentsazioa sortzen du jendearengan, urtarrileko eguzki epela izanda ere.

Elurte historikoa

Joan zaigun negua otsailaren 28an bota zuen elurte latzagatik gogoratuko da luze. Berezia izan zelako, eta lodi bota zuelako.

Berezia, hegotik etorri zelako, baina Siberiatik etorritako hotz masa batek Euskal Herria besarkatuta zuela. 4 ordutan 18-20 zentimetro bota zituen, eta errepideetan sekulako anabasa eragin, izotza ere egin zuelako. Etorri bezala joan zen elurra, hego haizeak txistu batean eraman zuelako hotz masa. Jonathan Lopez meteorologia zaletuarena da hausnarketa: "Hiru bat urte generamatzan Urnietan elurrak ez zituela kaleak zuritzen, eta egun horretako elurteak ekarri du jendeak negua oso gogorra izan dela pentsatzea". Aintzat hartzeko moduko beste datu bat: Adarramendi egun askotan egon da zuri-zuri, 40 bat egun. Normalean ez du hainbes-



tetan zuritzen, baina herrian euria izan denean, sarri elurra egin du mendian, eta iraun, temperatura hotz mantendu delako.

Negu langilea

Andoni Aizpuru ETBko eguraldia saioko aurkezleak 'negu langilea' erabili zuen joan berri den urtaroa definitzeko. Ezin egokiagoa: euritsuua, grisa, ohikoa baino epelxeagoa, eta eguzki gutxiagoa. Euskal Herriko negua. Indartsu agurtu zen, gainera, udaberriari bide emateko, astearte goizaldean



urnietarrak asaldatu zituen burrunba eragin zuelako tximista indartsu batek. Argia eta internet zerbitzuak eten zituen udaberriak negua uxatu arte.


"HIRU BAT URTE GENERAMATZAN ELURRAK EZ ZITUELA KALEAK ZURITZEN"

JONATHAN LOPEZ. URNIETA

"ELURTEAREKIN NEGU GOGORRAGOA IZAN DELA USTE DUTE ASKOK"

JONATHAN LOPEZ. URNIETA

Ordu aldaketa asteburuan



Udako ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

UXUE UGARTEMENDIA ANDOAIN

Hileta zibilentzat Udal arautegia

Kosta egiten zaigu heriotza hizpide hartzea. Saihestu egiten dugu gaia, gustu oneko kontua izango ez balitz bezala, gurekin ez baletor bezala. Baina heriotza bizitzaren atal bat dela onartu beharko dugu; alferrik gabiltza bizkar emanez. Duela hilabete batzuk, zenbait herritarrek, heriotzaz aritu ginen hizketan, eta hain zuzen ere, azken agurreko zeremonia publikoen gainean jardun genuen. Ingurura begira jarri, eta ohartzen ginen, gurean, hileta erlijiosoek (katolikoa, batik bat) nagusi izaten jarraitzen dutela oraindik, nahiz eta hildakoak edo bere familiakoak ondo ez konpondu erlijio horrekin edo eta erlijio hori zabaltzen duen instituzioarekin.

Urtetan atzera begira jarriz gero, ohartzen ginen gorpuak lurperatetik erraustera bide luzea egin den bezala, ez duela antzeko eboluzioa bizitu azken agurrak. Eta horretan, Gipuzkoako herri bakan batzuetan zeremonia zibilak ahalbidertzeko azken aldia egin diren udal arautegiak etorri zitzaizkigun burura.

Egungo gizartea oso anitza da kulturaren, ideologiaren eta erlijio sineskeraren ikuspuntutik, eta Udala erakunde akonfesionala eta laikoa den aldetik –eta herritar guztion ordezkari den heinean– iruditzen zitzaigun dauzkan baliabideak jar zitzakeela herritarren eskura, hartara geure senitartekoi edo lagunei azken agurra erritual zibil eta duin baten bidez egiteko aukera izan gezan.

Proposamena Udal gobernari luzatu genion, eta honek aintzat hartu zuen. Andoaingo ezaugarrietara egokitzeko testua atondu, eta beste alderdiekin adosten ibili ostean, Udal ordenantza bat osatu du. Joan den hileko udalbatzan onartu zen aipaturiko udal ordenantza, eta

UDALARI ETA ALDERDI POLITIKOEI HILETA ZIBILEN GAIAN AGERTU DUTEN SENTSIBILITATEAGATIK

bertan zehaztuta geratzen dira hileta zibilak egiteko xehetasunak... Eskerrak eman nahi dizkiogu Andoaingo Udalarari eta alderdi politikoei hileta zibilek gaian agertu duten prestutasun eta sentsibilitateagatik, eta gaia dagokion seriotasunez jorratu dutelako. Andoaindarrei ordenantzaren berri ematea beharko luke izan hurrengo urratsa. Eta hortik aurrera, norberak erabaki dezala.

HEMEROTEKA

TSST enpresako bus gidariei elkarrizketa

NOAUA (732. ZENBAKIA)

Autobusetako zerbitzu publikoan aldaketak datoz. Foru Aldundiaren Mugikortasun sailak iazko udan aurkeztu zuen aurreproiektuak zalaparta eragin zuen. Balizko birmoldaketa jende askoren kezka iturri bihurtu da. Autobus gidariak, adibidez, kexu dira. Beñat Atxega eta Ainhoa Elgezabal TSST enpresako txoferrekin batu gara. *“Zer nolako aldaketak egingo dituzten ez dakigu eta kezkatuta jarraitzen dugu”*, aitortu digutenez. **TSSTko gidariak zareten aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasun sailaren egitasmoak zein neurritan eragingo dizue zuei?** Aurreproiektuaren arabera, ‘Buruntzaldea’ izeneko

enpresa sortuko lukete eta enpresa berriak Hernani, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Tolosarainoko lineak bereganatuko lituzke. Gure enpresak, TSST, Lasarte-Orian du egoitza eta Tolosa-Donostia arteko autobus-lineak egiten ditugu nagusiki. Eta Usurbilen, Zubietako eta Ospitaletako lineak. **Zerbitzu batzuk murriztuko dituztela, beste batzuk kendu... Datu argirik ez dago. Egitasmo berriak nolako eragina izango du egungo garraio zerbitzuan?** Ez dago batere argi. Aurreproiektuaren arabera, zerbitzu batzuk desagertu egingo dira eta beste batzuk asko murriztuko dituzte. Adibidez, Ospitalerako autobus zerbitzuaren ordutegia murrizten badute, eragin zuzena izango du gure

lanean baina baita herritarren ere. Zeren ez dakizu noiz jarriko zaren gaixo, zure familikoek zein maiztasunarekin joan beharko duten ospitalera bisitan...

Murrizketak orokorrak izango dira ala linea jakin batzuei bakarrik eragingo die?

Aurreproiektuaren arabera, autobus-linea jakin batzuk desagertu egingo dira. Eta gainontzeko lineatan, murrizketa dezente egingo lirake. Dena den, ikusteke dago. Zubietako zerbitzua kendu egin nahi izan zuten baina alegazio pilo bat aurkeztu ziren eta atzera egin behar izan zuten. Aurreproiektutik proiektu berrira zer nolako aldaketak egingo dituzten ez dakigu, eta kezkatuta jarraitzen dugu.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri: Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktorea: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatazaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia Hileta Berlinguaren Zerbitzua

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

“Andoaingo merkataritza sustatzen saiatzen gara”

SANDRA VIERA SALKIN MERKATARI ELKARTEKO DINAMIZATZAILEA

Amaia Senperena ANDOAIN

Bizpahiru urte dira Andoainen Outleta antolatzen hasi zela Salkin elkarteak.

Nolakoa izango da aurtengoa?

Merkatari bakoitzaren arabera da, baina normalean saldu nahi diren produktuak kalera ateratzean datza. Salkinen kolore diren urdin eta horidun puxikak ipiniko ditugu saltokien ateetan, Outleta eskaintzen ari direla argiago gera dadin.

Zer motatako dendak hartzen dute parte ekimenean?

Normalean ehungintza alorrekoak: moda eta osagarriak, esaterako. Baina burdindegia batek ere parte hartuko du.

Zer motatako eskaintzak aurki ditzakegu bertan?

Hainbat produktu beherapenetan, edota beste batzuk denboraldietako produktuak prezio merkeagoan ipinita.

Azken urteetan Salkin elkarteak bizitasun handiagoa hartu du. Zer dela eta?



Sandra Viera Salkin elkartearen dinamizatzailea, aurreko agerraldi batean. AIURRI

Jarduerak biderkatu ditugu, herri barruko denda eta merkatalguneak ezagutzera emateko. Saltokiak egoera zaila igarotzen ari dira, eta hori dela eta ekimenez bete dugu egutegia.

Horrelako outletak egitea garrantzitsua dela esango zenuke, beraz.

Bai, baina urtean zehar gehiegi egitea ere ez zait onuragarria iruditzen. Normalean urtean bi egiten

ditugu; udaberriaren hasieran bat eta irailean bestea.

Eguraldiak erabat baldintzatu dezake outletaren arrakasta. Aurreko urteetan Aste Santuaren aurreko ostiralean egin genuen eta, arrakastatsua izateaz gain, saltzaileak ere oso gustura geratu ziren. Hori horrela izanik, aurtengoa ere data bera erabiltzea erabaki dugu.

Ea eguraldi txarrak ez duen jardunaldiaren arrakasta baldintzatzen!

Zein helburu duzue outlet honekin?

Gure helburu handiena herritarrek herriko saltokietan erostera ohitzen saiatzea da. Horregatik garrantzitsua iruditzen zaigu Andoainen horrelako ekintza ezberdinak antolatuz herriko saltokiak ezagutaraztea. Saltokirik gabeko herria ez baita herri.

Tolosa begiratu besterik ez dugu. Saltokiz eta biziz beteriko herria da.

Ostiralerako antolatu dugun ekimen ezberdin txikiekin Andoainen ere berdina egiten saiatzea da gure asmoa.

Beraz, ostiral honetan andoaindarrak kalera atera eta, herriari bizia emanez, herriko merkataritzari laguntza ematera animatu nahi ditugu.

HAU ERE BADUGU!

Haur parkeak Andoainen



Joan zen Aiurri astekarian, Zabalik atalean, Jon Zulueta Andoaingo zinegotziak haur parkeak estaltzeko Udalak martxan jarri nahi duen egitasmoa iragarri zuen. Sarean ikusmin handia piztu zuen albisteak, webgunean eta sare sozialetan. Aurri.eus webgunean, esaterako, bederatzi iruzkin argitaratu ziren beste hainbeste herrikideen ekarpenekin. Gutxitan bezalako parte hartzea piztu zuen albisteak, beraz. Kasu guztietan iruzkingileek gustuko aukeraren aldeko iritzia eman zuten. *Andoaindarrak y punto* FB orrialdean ere proposamen ugari daude.

Outleta iragartzeko marketing kanpaina



Herriguneko hainbat merkatalguneetan Outleta iragarri dago, ostiral honetarako. Egun osoan zehar hainbat abantailez gozatzeko aukera izango da. Sare sozialetan hainbat merkatarik dagoeneko beherapenetan jarriko dituzten produktuak iragarri dituzte. Ormendi kirolak dendakoek, adibidez, *"Negua joan da! Txamarrak kanpora"* esaldia erantsita hainbat txaleko ikusgai agertzen ziren argazkia eskegi zuten Facebook orrialdean. Ostiraleko hitzordua iragartzeko marketing kanpaina erakargarria.

ITURRI ONETIK

Apustua

Apirilean Arizmendi eta Pikabea kirolarien arteko desafioa jokatu da Hernaniko Galarreta ondoko zelaian. Aiurrik zeharkako parte hartzea izan du bi kirolarien arteko hitzartzean. Izan ere, aurretik ez zuten elkar ezagutzen. Pikabea izan zen, Aiurri irakurrita, Arizmendiren berri izan zuena eta erredakziora deitu zuen haren telefono zenbakia eskatzeko. Hedabideak Andoaindik eta Urnietatik kanpo duen irismenaren seinale da hori. Aiurrik, noski, apirilaren desafioaren jarraipena egingo du. Hasteko, astekari honetan bertan.

GORA ETA BEHERA



Hainbat tabernariren ekimena

Joan zen larunbatean, Zumea plazan, 80ko hamarkadako giroa nagusitu zen. Tabernariren ekimenez, garai hartako musika entzun zen arratsaldean hasi eta goizaldera arte. Okasiorako, gainera, taberna bakoitzean apaingarriak ipini zituzten eta baita tabernariak mozarrotu ere! Herria girotzeko ekimen polita izan zen, ostiral honetako Outleta bezalaxe.



Jabekuntza eskolaren ikastaro sorta, apirilean

Batukada, teoria feminista, sendabelarrak, autodefentsa, emozio tailerra... , ikastaroetan izena emateko aukera zabalik dago Urigain kultur etxean, Berdintasun sailaren bulegoetan

Ainhoa Gil ANDOAIN

Aste Santuko oporraldiaren ostean, ikastaro sorta zabala eskura ipiniko du Berdintasun sailak.

Batukada feminista

Musikara gerturatu eta ondo pasatzeko tailerra. Horrez gain, emakumeak talde-lanean aritzeko aukera eskaintzen du batukadak, eta baita sormena lantzekoa ere. Batukada kalera irtetean, gainera, espazioak okupatuz jendearen gozamena ere sustatzen du.

Datak: Apirilak 9 eta 23, maiatzak 7 eta 21, ekainak 4.

Ordua: 19:00-20:30.

Dinamizatzaileak: Arantza Vicedo eta Ainara Sarasketa.

Jatorri anizetako emakumeen elkargunea

Jaioterri ezberdinetako emakumeak, astero bildu eta euren bizipenak partekatzeko espazioa.



Batukada feminista ikastaroa abiatu da. AIURRI

Ordua: Astelehena, 17:30-19:00.
Dinamizatzailea: Beatriz Zalakain.

Hazkuntza eta hezkuntzaren ardura

Haur eta nerabeen guraso nahiz hezitzaileei zuzendutako ikastaroan, feminismoaren oinarriko kontzeptuak landuko dituzte. Berdintasunean hezteko zaindu beharrekoak identifikatzen la-

guntzeko eta hausnartzeko tartea.

Datak: Apirilak 10, 17, 24, eta maiatzak 2, 8 eta 15.

Ordua: 17:30-19:00.

Dinamizatzailea: Ametsondoa elkarte.

Teoria feminista

Mugimendu feministaren praktika eta teorietan murgiltzeko tailerra. Horrekin batera, inguru hurbilean beharko liretekeen praktika feministez ere hitz egingo dute taldean.

Datak: Apirilak 11, 18, 25 eta maiatzak 2, 9, 16 eta 23.

Ordua: 18:00-22:00.

Dinamizatzailea: Emagin.

Emoziotegia

Sentimenduak identifikatu, onartu eta kudeatzeko tresnak lantzeko tailerra. Egunerokotasunean sortzen diren sentimenduen inguruan aritzeko aukera eskainiko da, emakumeen subjektibotasuna kontuan hartuz, eta genero perspektibatik landuz.

Datak: Apirilak 17, maiatzak 8 eta 22 eta ekainak 12 eta 19.

Ordua: 18:00-20:00.

Dinamizatzailea: Nerea Redondo.

Menopausia eta autoezagutza

Aldaketarako eta hazteko momentu gisa ikusten laguntzeko tailerra. Euren burua hobeto ezagutu eta zaintzeko aukera ere eskainiko die emakumeei.

Datak: Apirilak 18, 25 eta maiatzak 2, 9, 16 eta 23.

Ordua: 16:30-18:30.

Dinamizatzailea: Clara Wolfram.

Sendabelarrak

Emakume arbasoen ezagutzara hurbiltzeko ikastaroa, teoria eta praktika uztartuz. Parte-hartzaile bakoitzak elkarrekin prestutako produktuak etxeratuko ditu saio bakoitzaren amaieran.

Datak: Maiatzak 10, 17, 24, 31. Ordua: 18:00-20:00.

Dinamizatzailea: Cristina Lizarraga.

Autodefentsa tailerra

Erasoak identifikatzen ikasiko dute parte-hartzaileek. Erasoei erantzuteko mekanismoak eta ekintzak ere ikasiko dituzte.

Datak: Ekainak 16 eta azaroak 17.

Ordua: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Dinamizatzailea: Emagin.

Izena ematea doakoa da, ikastaro guztietan

Izena emateko epea zabalik dago. Parte hartzaileek eskatuko balute, haurtzaindegi zerbitzua martxan jarriko dute ikastaro bakoitzerako.

Informazio gehiago eskatu edota izena emateko:

- Andoaingo Berdintasun Arloa.
- Urigain eraikina, 1 bulegoa.
- 943 300 830
- sbarrenetxea@andoain.eus.



TXOTX'18

Sagardotegia, Aste Santuko oporraldirako aukera aparta

Sagardo route

943 336 811
Astigarraga

Mizpiradi

943 593 954
Andoain

Sarasola

943 690 283
Asteasu

Iguarte

658 435 160
Usurbil

Larre-gain

943 555 846
Ereñozu-Hernani

Gaztañaga

943 591 968
Andoain

R. Zabala

943 690 774
Aduna

Petritegi

943 457 188
Astigarraga

Hotel K10

943 337 357
Urnieta

Harpidedun egin zaitez eta Kantu Liburuxka etxean jasoko duzu: **943 300 732 idazkaritza@aiurri.eus**



Irrisarriland abentura parkera irteera, iaz. URNIETAKO GAZTELEKUA

Oporraldia Gaztelekuan

Gazte askoren zaletasunak eta gustuak biltzen dituen programazioa prestatu dute Gaztelekuko arduradunek, Aste Santua herrian igaroko duten gazteei begira. Tailerrez gain, kirolari eta zinemari lotutako irteerak ere antolatu dituzte

Olatz Lasa URNIETA

Aste Santuan herrian geratuko diren gazteentzako tailerrak eta irteerak antolatu ditu Urnietako Gaztelekuak, martxoaren 26tik apirilaren 6ra bitartean. 11 eta 16 urte arteko gazteentzako pen-

tsatutako ekintzak dira, hau da, LHko 6. mailatik, DBHko 4. maila bitarteko ikasleentzat; horiek baitira Gaztelekuko instalazioak erabili ohi dituztenak.

Garazi Jauregi eta Beñat Alonso dira Gaztelekuko arduradunak,

eta hortaz, ekintza guztien antolakuntzan dabilzan pertsonak. Garazi Jauregik azaldu duenez, "hiru ekintza mota antolatzen saiatu gara: Gazteleku barruan, esaterako, sukaldaritza eta eskulan tailerrak; herrian zeha-

rreko ekintzaren bat, kasu honetan, altxorrenen bila jokoa, eta hirugarrenik, irteerak". Irteera baikotzean 24 laguntzako lekua dago, eta gazte gehiagok izena eman badute, zozketa egingo da martxoaren 23an.

Gaztelekutik kanpo

"Elkarren artean erlazioz laguntzeko balio dute irteerak eta tailerrek", adierazi du Alonso. Gazteen gustuen eta interesen arabera osatu da programazioa, beraiek proposatutako ekintzekin, hain zuzen. Ekintza guzti horien helburua "esperientzia esanguratsua" sortzea dela azpimarratu du hernaniarrak. Urtean zehar gune itxian, Gaztelekuan, egon ohi dira, eta oporrek gazteekin egun osoz kanpora joateko aukera ematen dietela gehitu du.

Zinemara ere opor egunak dituzteneko joaten dira, Errenteriako Niessen zinema aretoa, zehazki. Gazteek gustura hartzen duten ekimena dela esan dute. Hala ere, irteera arrakastatsuen irrisarriland abentura parkea dela azpimarratu dute.

Bestalde, hilabetean behin ekintzaren bat antolatzeko asmoa dutela adierazi dute Gaztelekuko arduradunek. Oraindik ezer zehaztuta ez badago ere, hilabetero zerbait antolatuko dela ziurtatu dute.

Gurasoekin bilera

Gaztelekura joaten hasi berri diren gazteen gurasoentzat bilera informatiboa antolatu dute aste honetan. Bide batez, udaberriko antolatu diren tailerren berri emateko. Gazte Informazio Puntuak eta ludotekak, bestalde, tailerrak antolatu dituzte apirilaren 6an, 13an eta 20an. Lehena, Lappa musika taldearekin.

NERE USTEZ

ALBA CABRERA
JAUREGI URNIETA

Hona hemen asmakizun bat

Demagun aita batek bere zazpi urteko semea kotxean eramaten duela, egunero-egunero, ikastolara. Egun euritsu batean istripu larria eduki eta aita bertan hiltzen da; semea, berriz, larriki zauritua ateratzen da.

Inguruan zebiltzan lekukoek ezbeharrak ikusi eta ospitaleko larrialdi zerbitzuetara eramaten dute. Bertako zirujauak paziente ikusi eta halako batean zera dio: "Ez diot nik ebakuntza egingo, ezin dut, nire semea da".

Zer gertatu da, zehazki, lerroetan hizpide dudan kontakizunean?

Batzuek umeak bi aita dituela diote, besteentzat hildakoa haurraren aita-ordea da. Gainontzekoek izugarriko buruhausteak izaten dituzte, ez baitute egoera ulertzen: seme zaurituaren aita bada, zirujaua nola egon daiteke era berean hilik eta haurrari ebakuntza egingo dioten ebakuntza gelan?

Ziur naiz zirujaua nolako den azaltzeko eskatuko banu, gehiengo handi batek ia mende bat adina urte dituen gizon-berriri diot, gizon-eskarmetudun buru-zuri baten deskribapena egingo zukeela...

Antza lurra sortu zenetik existitzen den giza espezie bakarra da.

Gobernantzaren bikaintasun zigilua lortu du Udalak

Europako Kontseiluaren aitoren goren lortu du Urnietak Basauri, Leioa, Ermua eta Irunekin batera

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak Europako Kontseiluak ematen duen Gobernantzaren Alorreko Bikaintasuneko Europako Zigilua (ELOGE) lortu du. Zigilua emateko, gobernanta onaren hama-

bi printzipioetan oinarritu dira: gardentasuna, herritarren parte-hartzea, portaera etikoa, eraginkortasuna eta efizientzia, finantza-kudeaketa osasungarria, berrikuntza, berdintasuna, giza eskubideak edota aniztasuna.

Sari banaketa ekitaldia asteartean egin zuten Donostiako Donostiako Koldo Mitxelena aretoan. Kristalezko dodekaedro bana jaso zuten kalifikaziorik altuena lortu duten bost Udaletako alkateek: Mikel Pagola (Urnietak), Jose Antonio Santano (Irun), Andoni Busquet (Basauri), Maria del Carmen Urbieta (Leioa) eta Carlos Totorika (Ermua). Zigilua etengabeko hobekuntzarako tresna da. Bi urteko iraupena izango du, ziurtagiria berritzeko aukerarekin.



Aitorpena jaso zuten alkateek, asteartean Donostian. URNIETAKO UDALA

Maila goreneko klarinete jaialdia Basteron

Joan zen larunbatean hemezortzi laukote igo ziren Basteroko taula gainera, Udal musika eskolak eta Sapere Aude Sinfonetta elkarteak Andoaingo Udalaren laguntzarekin antolatu zuten jaialdian. Euskal Herri osoko musikariak bildu ziren bertan



Lautan Quartet (*Alfonsina y el mar*): Claudia Alduncin, Arantxa Irigoras, Jose Luis Perez eta Josu Otxandorena. AIURRI



IEPA Quartet (*An Irish stew*): Patricia Nistal, Aizpea Oria, Irene Requeijo eta Eider Iturriondobeitia.



Klariando Quartet (*2 tangos*): Xabier Ucin, Aizpea Oria, Leire Barquero eta Maddi Elizasu.



Friends Taldea (*Norwegian dance*): Urko Lizaso, Unai Ulanga, Maitane Urkola eta Ekiñe Lasa. AIURRI



Hasi Berriak (*Ni euri tanta banintz*): Martin Sanchez, June Lizartza, Ane Escribano eta Oihane Telletxea. AIURRI



Kuarteto Kalabera (*The froggy day*): Iosu Mujika, Alex Castro, Oier Moreno eta Axel Arrikarte. AIURRI

Amaiera distiratsua Klarinet.eus taldearen emanaldiarekin

Euskal Herriko musika eskola eta kontserbatoriotako klarinete irakaslez osaturiko talde edo ensemblea da Klarinet.eus taldea. Maila bikaineko taldea, beraz. Emanaldi berezia izan zen, jaialdiari amaiera distiratsua eman ziona. Izan ere, jendaurrean aritzeko oso gutxitan elkartzen dira. Hernaniko Musika Eskolako zuzendari den Roberto Pachecok zuzendu zuen jaialdiaren amaierako kontzertua.



Emezabal, Etxebeste, Chirivella, Ocon, Etxepare eta Casadó. AIURRI



Mixelena, Castillejo, Velasco, Divar, Uharte eta Pacheco. AIURRI

"Bertso saio goxoa eta gertukoa da Basterokoa"

UNAI MUÑOA LASARTE-ORIAKO BERTSOLARIA

Andoainen bertso irakasle den lasartearrak aitortzen du igandekoa ez dela bere saioren ohikoena, baina daukan guztia emateko prest agertu da.

Xabier Lasa ANDOAIN

Zenbatgarren parte hartzea duzu Sahararen aldeko bertso saioan?

Esango nuke azken lau urtetan etorri naizela Basterora.

Nola ikusten duzu Bastero bertso leku gisa?

Oso areto goxo eta egokia da bertsolariarentzat. Bildua da, 200 pertsonentzat tokia daukana. Entzulea gertu-gertu sentitzen duzu, erabat erne kantatuko ditugun bertsoekin. Gertutasun horrek energia handia transmititzen dio bertsolariari. Pertsonalki, oso ohituta ez nagoen formatuan kantatzea egokituko zait. Bazkari, afari eta antzeko saioak dira normalagoak nire bertsokerarentzat, eta Basterokoak oholtzan egoteko modu diferentea eskatuko dit; eguerdian izateak ere bere apartekotasuna dauka. Umorera jotzeko, esate baterako, burua ondo jarri beharko dut lanean.

Bestalde, aipatu behar dut Basteroko aretoak esanahi berezia daukala niretzat. Bertan estreinatu baikenuen antzerkia, bertsoa, poesia eta musika uztartzen zituen *Ez naiz Palestinaz ari* ikuskizuna.

Saioa kausa zehatz baten alde izateak, berezitasunik eransten al dio saioari?

Sahararen auziak beti eragin izan dit sinpatia, baina ez dut gehiegi bizi izan, eta ez da nire egunerokoan presente dagoena. Horrexegatik, igandeko saioa baliatzen dut Hurria-Sahara taldeko kideekin egoteko, Saharako herritarren bat edo beste ezagutzeko... Aberasgarria egiten zait eguna; Saharari buruz

"BASTEROKO SAIOAN ETA URTEAN ZEHAR IKUS DAITEKEENEZ, BERTSO ZALETASUNA BADAGO ANDOAINEN"



Unai Muñoz kantari eta Alaia Martin aldamenean adi, iaz egin zen saioan. AIURRI

aurrez nekiena baino gehiago jakinda itzultzen naiz etxera.

Nola harrapatzen zaitu igandeko saioak, egun, bertsolari gisa?

Asentatuta nago bertsolari gisa. Kontziente naiz ez daukadala ikaragarriko mailarik. Badakit zer eman dezakedan eta zer ez, eta ez daukat garai batean plazak irabazteko eduki nezakeen anbizioa. Emankorra naiz testuinguru informaletan, protokolo tradizionalera lotu gabeak diren bertso-saioetan, lehen esan bezala, eta horietan ikasi dut bertsoarekin eroso moldatzen eta gozatzeko. Jakina, horrek ez du esan nahi, inondik ere, igandeko saioak ez nauenik motibatzen. Alderantziz, pizgarri zait daukadan guztia eman dezadan ahalegintzeko. Are gehiago nirekin batera kantatzekoak diren bertsolari pusken mailan jartzeko.

Lasartearra zara, baina egunaren erdia Andoainen pasatzen duzu kasik...

Iraganean, Andoain Lasarteren ondoan zegoen herria zen niretzat, ez gehiago. Egun, bertso irakaslea naiz La Sallen, Aita Larramendi ikastolan eta Ondarretan, eta guztira hamabost

talderekin lantzen dut bertsoa; hogeitatu urte daramat eginkizun horretan, eta jakina, gazte belaunaldi ugari ezagutzea egokitu zait. Horrez gain, helduen bertso eskolako irakaslea ere banaiz. Uler daitekeenez, lotura sendoak egin ditut Andoaingo herriarekin. Andoaindarra ere banaizela esateko moduan nago!

Gainera, jakin dut nire ikasle izandako gazte batzuk, orain bertso eskolan ari direnak, gai jartzaile gisa ari direla Ion Belokiri lagunduz. Horrek ederki poztu nau!

Nola ikusten duzu Andoainen bertsolari eta zaletasuna, egun?

Zaletasuna badago, Basteroko saioak eta urtean zehar antolatzen diren beste hainbatek adierazten duten legez. Zabalkunde eta transmisioaren arlotan, Udalak eta Gipuzkoako bertsolari eskolak bere garaian asmatu egin zuten bertsoaren hazia irakaskuntza arautuan erite-rakoan. Esango nuke Andoainen hazten joan dela zaletasuna, eta egun Ion Beloki, Eskudero anaiak, Arkaitz Lasarte..., badira zenbait pertsona serio ari direnak sustapen lanean, motor gisa.



Andoni Urbistondo lehiakideetako bat da. ANDONI URBISTONDO

Diaporamak ikusgai Saroben

Astean zehar hiru lan ikusteko aukera izan da; ostiral honetan beste biak. Dagoeneko eskaini dituztenak honakoak dira: Ane Arozena (Erasmus esperientzia Mexikon), Andoni Urbistondo (Bistare-Bistare) eta Ane Arregi (Made in Taiwan). Ostiral honetan, berriz, 11:30ean Alain Motorena (Riding South Asia) eta 18:30ean Maddalen Kortajarenarena (Etiopia).



URNIETAKO UDALA

'Organoa eta lagunak' emanaldia

Joan zen ostegunean, martxoak 15, Lurdes Iriondo Udala musika eskolako organo ikasleek organo errezitaldia eskaini zuten elizan. Ez ziren bakarrik aritu, lagun izan baitzituzten biolin, klarinete eta bonbardinoko zenbait ikasle. Eta baita musika-hizkuntzako taldea eta Asier Lizartza musikaria ere.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

111 Akademia Sariko finalistak iragarri dituzte

Maddi Zubeldiaren 'Deserria haurtzaro' eta Uxue Alberdiren 'Jenisjoplin' idazlanen artean erabakitze aukera zabalik izango da, datorren apirilaren 8ra bitarte. Sari banaketa ekitaldia maiatzean izango da, Andoainen

Erredakzioa ANDOAIN

Iaz argitaratutako lanen artean 111 Akademiaren Saria nori eman erabakitze, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko akademiak amaiera eman dio bigarren bozketa txandari, otsailaren 16an martxan jarri eta martxoaren 15era arte zabalik izan dena. Alaine Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*, Maddi Zubeldiaren *Deserria haurtzaro*, Alberto Ladron Aranaren *Jainkoen zigorra*, Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eta Iñigo Urdinagaren *Surflaria eta paradisia* izan dira lehen bigarren txanda horretan, lehenengo bueltan boto gehien jaso zuten bost obrak, alegia.

Bost idazle lehen bozketan, bi azken bozketan

Bigarren bueltan saridun izendatzeko beharrezkoa den botoen %40a lortu duen lanik ez da izan eta, beraz, boto gehien jaso duten bi obrak aurtengo finalera



Maddi Zubeldiak "Deserria haurtzaro" aurkeztu zuen 2017an. © AURORE LUCAS

pasatu dira: Maddi Zubeldiaren *Deserria haurtzaro* eta Uxue Alberdiren *Jenisjoplin*.

Bi lan horien artean hautatu beharko dute sariduna akademiakideek apirilaren 8ra bitartean.

Sari banaketa ekitaldia, maiatzean Andoainen

Akademiak apirilaren amaieran emango du ezagutzera 2017ko 111 Akademia Saria, eta sari banaketa maiatzaren hasieran egitea aurreikusten du.

Finalera iritsitako bi liburuak



Liburu sarituak urtez urte

- | | |
|--|---|
| 1996 Joxean Agirre. <i>Elgeta</i> | 2006 Karmele Jaio. <i>Amaren eskuak</i> |
| 1997 Ur Apalategi. <i>Gauak eta hiriak</i> | 2007 Jokin Muñoz. <i>Antzararen bidea</i> |
| 1998 Koldo Izagirre. <i>Nik ere Germinal! egin gura nuen aldari</i> | 2008 Anjel Lertxundi. <i>Zoaz infernura, laztana</i> |
| 1999 Lourdes Oñederra. <i>Eta sugeak emakumeari esan zion</i> | 2009 Irati Jimenez. <i>Nora ez dakizun hori</i> |
| 2000 Ramon Saizarbitoria. <i>Gorde nazazu lurpean</i> | 2010 Ur Apalategi. <i>Fikzioaren izterrak</i> |
| 2001 Joseba Sarrionandia. <i>Lagun izoztua</i> | 2011 Harkaitz Cano. <i>Twist</i> |
| 2002 Anjel Lertxundi. <i>Zorion perfektua</i> | 2012 Ramon Saizarbitoria. <i>Martutene</i> |
| 2003 Bernardo Atxaga. <i>Soinujolearen semea</i> | 2013 Miren Agur Meabe. <i>Kristalezko begi bat</i> |
| 2004 Pako Aristi. <i>Gauza txikien liburua</i> | 2014 Mikel Peruarena. <i>Su zelaia</i> |
| 2005 Juan Kruz Igerabide. <i>Hauts bihurtu zineten</i> | 2015 Katixa Agirre. <i>Atertu arte itxaron</i> |
| | 2016 Kirmen Uribe. <i>Elkarrekin esnatzeko ordua</i> |

Dantzaz konpainia Basteron

Erredakzioa ANDOAIN

2016an sinatutako lankidetzaz hitzarmenari jarraipena emanez, aurtun ere Dantzaz konpainia Bastero kulturgunean izango da zenbait ikuskizun prestatzen. Aste honetan entseguei ekin diete eta ostegun honetan, martxoak 22, astean zehar landutakoa ikusteko aukera eskainiko dute. John Gerena koreografoaren lehen lana ikusgai izango da arratsaldeko 19:00etan hasita, doako sarrerarekin. Dantza garaikideaz gozatzeko aukera paregabea, beraz.

Udazkenean beste bi egonaldi egingo dituzte.

Beti Abeslari abesbatzako kideei deialdia

Larunbat honetan, goizeko 11:30ean hasita, Beti Abeslari abesbatzako kide izandakoei bilera egitera deitu diete. Duela 50 urte sortu zen Juan Bautista Barandiaran Iturriotzen eskutik, eta bertan hainbat herrikidek parte hartu zuten. Bileraren arrazoiak da abesbatza sortu zenetik 50 urte beteko direla aurtun. Data seinalatua kontutan harturik, kide izandakoei Olagain auzuneko entsegu gelan biltzeko deialdia luzatu diete.

Argazkia 1968ko abenduaren 29koa da, Goiburun auzoko San Esteban ermitaren aldairearen ondoan ateratakoa.





Pikabea eta Arizmendi Jauregi jatetxean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Bi herri kirolariak Hernaniko Jauregi jatetxean martxoaren 6an bildu ziren, aizkora eta lasterketa uztartuko dituen apustua hitzartzeko. Datorren apirilaren 21ean Galarreta ondoko zelaian indarrak neurtzekotan geratu ziren. Honako baldintzak jarri zituzten, desafiorako: aizkora, 45 ontzako lau enbor eta bi kanaerdiko ebaki beharko dituzte; lasterka, berriz, 7 kilometro egin beharko dituzte, hots, 70 itzuli 100 metroko eratzunari. 10 euroko sarrera jarriko da, eta bildutako dirua gastuak ordaintzeko izango da. Herri Kirolen Federazioak zuzenduko du norgehiagoka.

Hernanikoa da Pikabea eta Andoaingoa Arizmendi. Ez zuten elkar ezagutzen, orain dela hilabete batzuk Pikabeak Arizmendiari telefonoz hots egin eta apustuaren kontua proposatu zion arte.

Pikabea, mendi-gizon zaildua

Herri kirolen eta apustuen zale dela aitortu du Rosario Pikabeak: "Mendirako joera eduki dut beti, ardiekin, ahuntzekin..., eta basoan lanean aritutakoa naiz. Beti pentsatu izan dut mendiko gizona naizela, kaletar izatetik gutxi daukat. Gaur egun ere basozaina naiz ogibidez". Bere bizitzan bizpahiru apustuaren parte hartutakoa da. Eta horietako bat korrika eta aizkora izan zen, Jon Larrañagaren aurka orain bederatzirte Ereño-

Apirilean apustua dago

Hurbiltzen ari da Ereñotzuko Rosario Pikabeak eta Andoaingo Jon Arizmendik hitzartu duten apustuaren eguna. Apirilaren 21ean aizkora eta korrika arituko dira nor baino nor, Galarreta pilotalekuaren ondoko Jauregi jatetxearen zelaian

tzun bertan jokatu zutena. Bi kirol jardueretan badauka eskarmentua, beraz, Ereñotzukoak.

Nolanahi ere, horiek nahiko kontu zaharrak direla azpimarratu nahi izan du "beti ibili izan naiz herri kirolean eta lasterka, baina azkenean asperu eta dena utzi nuen. Orain urte batzuk gihar bikien haustura eduki nuen, eta dena utzi behar izan nuen. Kostatzen ari zait berriro ere erritmoa hartzea; urteak aurrera doaz eta gorputzak ez du lehen bezala erantzuten".

**AIZKORAN,
45 ONTZAKO
LAU ENBOR ETA BI
KANAERDIKO EBAKI
BEHARKO DITUZTE**

Entrenamenduetan laguntzailer gisa, Oiartzungo Joxe Arbelaitz hartu du Pikabeak.

Arizmendi, aizkora hasiberria

Pikabeak, urtetan dezente gazteagoa den aurkariarekin neurtuko ditu indarrak. Jon Arizmendi hasiberria da herri kirolen munduan. Asko ez dela, lankide duen Jose Otaegi aizkolariarekin desafioa jokatu zuen. Orduan hasi zen serio hartzen aizkora, eta berehala, azken bi urtetan, bi txandatan atera izan da plazara, enborrak ebakitzera. Biak ere Andoaingo Santakruztetan; Egoitz Gorostegi *Txatarras* eta Unai Etxeberria herriko gazteen aurka. Nagusitasunez menderatu zituen biak, eta aizkora aritzeko dohainak badietuela erakutsi zuen. Harrezkero, entrenatzen ari da bizitoki duen Goiburun, Merdillegi baserrian.

Nolanahi ere, plazan ez dauka probatuta aizkora eta lasterketa bi modalitateak uztartzearen kontu hori, eta horrexegatik, apustuak errespetua eragiten diola aitortu du: "Niretzat erabat berria da bi kirol jarduera bata bestearen segidan gitea. Eta ez

naiz korrikalaria izan inoiz, orain hasi naiz entrenatzen, lagun batek gidatuta. Egia esanda, jauzi galanta da niretzat. Batzuetan galdetu izan diot nire buruari ba ote dakidan non sartu naizen. Gainera, Pikabea plazan lanean ikusi duen lagun batek baieztatu dit kirolari handia dela. Kontua da erronka pertsonal gisa hartzen dudala apustua, eta horrek animatzen nau gogor entrenatzera eta apustua ilusioz hartzera. Gerra emateko pronto azalduko naiz".

Giroa sortu nahian

Jauregiko zelaia makina bat apustuen lekuko izan da herri kirolen historian. Pikabea zein Arizmendi sinetsita daude desafioek herri kirolen inguruko zaletasuna hazten laguntzen dutela. Hala dio Pikabeak: "Apustuak jende ugari mugiarazten du, izan baserri girokoa, izan kale girokoa. Bata bestearen aurka lehiatze horrek bizitasuna ematen die herri kirolei, eta pena izango litzateke mundu hori galtzen uztea. Guk biok ahaleginak egingo ditugu hori gerta ez dadin".

Pikabeak, euren antzeko kirolari apalek herri kirolei eman diezaieketen bultzada aldarrikatu nahi du: "Aizkora, esate batera, elitean dabiltzanak plaza guztiak jaten dituzte eta gu bezalako amateurretzat gero eta toki gutxiago geratzen ari da".

Apustura hurbiltzeko deia

Arizmendik dionez, "emozioa izango dela iruditzen zait eta ikusleak lehia polita ikusiko du. Ea Buruntzaldeko zaletuak animatzen diren! Pertsonalki, nahi nuke lehendik ere Santakruztetan lanean ikusi nauten andoaindarrak mugituko balira".



Apustua eskua emanda hitzartu zuten, Federazioko epaileen aurrean. AIURRI



NIRE USTEZ

ANDONI URBISTONDO KIROL KAZETARIA

Bazka

Kirol kazetaritzak galbahea egoki erabiltzen erakutsi dit, urteen joan-etorrian. Zer gustatzen zaidan, zer ez, zergatik aukeratuko nukeen kirol ekitaldi bat zuzenean ikustea, edo zergatik ez... Ikasle garaian Realzale petoa nintzen, kinielak eta Espainiako irrati kateetako *carrusel* saioen entzule fina. Baskonia saskibaloia taldea, futbolari gaina hartzen hasi zirtaion, pixkanaka. Eta baita txirrindularitza ere, noski. Errugbia etorri zen ondoren, eta futbola indarra galtzen hasi. Baina erabat desagertu gabe, futbolak eta futbolaren inguruko munduak sekulako indarra daukalako.

Egunero, edonon, edozein momentutan suma daiteke indar hori. Tabernatan beti dago futbola, Zeelanda Berriko Liga izanda ere. Jende askoren aldartea bere futbol-talde kutunaren emaitzaren arabera da. Telebista gehienetako kirol saioetan futbola da, ia hizpide bakarra, aspergarri egiteraino.

Futbolak berak baino gehiago saltzen baitu futbolaren inguruko bazkak,

polemikak eta ika-mikak. Epailearen eta jokalarien ekintza oro luparekin aztertu edo kritikatu beharra dago, nonbait.

Joan zen asteburuan Erroman izan ginen lagun batzuk, Errugbyko Sei Nazioak txapelketako Italia eta Eskoziaren arteko partida ikusteko. Ikaragarria izan zen. 60.000 lagun estadioan, eskoziarrak euren *kilt* jantziekin hara eta hona lasai, Italiako *fratelli*-ak euren kamiseta *azzurra* soinean harro. Errugbi partida baten bueltan, denak. Maite dut errugbia, kirol lehiaz haratago kiroltasun osagai bete-beteak dituelako. Ez dut errugbia zeruratuko. Ez dut esango denetarako ispilua denik, edota errugbian mespretxu edo irainik ez dagoenik. Bai, badaude. Baina partida bukatuta itzali egiten dira, zorionez.

ERRUGBIAN ERRESPECTUA IZATEN ZAIO EPAILEARI. ESPAINIAKO AZKEN PARTIDAN IZAN EZIK

Erromatik bueltan jakin dut Bruselan Belgika eta Espainiako errugbi selekzioen arteko partidaren zer pasa zen. Espainiak galdu, eta kolokan jarri da Japoniako Munduko txapelketan jokatzeko ia-ia ziurtatua zeukan txartela. Porrota onartu ezin, edo nahi ez, eta Espainiako selekzioko jokalariek *scratches*-a egin zioten Vlad Iordachescu epaile errumaniarrari. Lau hilabete atzera izendatu zuten epailea! Emaitzak, baina, Errumania sailkatu du Munduko txapelketara, eta horrek hautsak harrotu ditu Espainiako errugbi munduan. Inoiz ikusi gabeko jazarpena egiteraino, epaileari. Errugbian jokalariek ez dute epailearen erabakirik auzitan jartzen, eta jartzen badute, zigor itzelak jaso ohi dituzte. Errespetu itzela edukitzen zaio, tradizioz. Espainian izan ezik, nonbait. Arrazoiren bat bilatu nahi baduzue, honatz, indartsuenetakoa: zale askorentzat Espainia eta Belgikaren arteko errugbi partida izan zen ikusten zuten lehenena. Gehienak futbol zale sutsuak. Buelta daitezela futbolera, mesedez.

Gaztelekuko Alkorta eta Ponce, Gipuzkoako txapeldun

GOMAZKO PALETA Gazteleku pilota eskolako Xabier Alkorta eta Koldo Ponce Gipuzkoako Udaberri txapelketako irabazle dira, 22 urte azpiko paleta goman. Ataunen jokatuako finalean, Real Sociedad taldeko bikotea garaitu zuten (30-20).



Xabier Alkorta eta Koldo Ponce. AIURRI

GRAVNI txapelketa

Trinketean, urnietarrek bikain ekin diote txapelketa garrantzitsuari. Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola bikoteak Nafarroakoa garaitu zuten (35-40). Larunbat honetan, bigarren jardunaldia Iruran: 14:30ean hasita Alduberri jubentia eta Loitegi-Esnaola seniorrak Bizkaiaren aurka.

Garaipena Madrid aldean

ATLETISMOA Tactika Trail 2018 txapelketaren bigarren proba Madrid komunitateko Mataelpinon jokatu zen, joan zen martxoaren 11n. Bertan parte hartu zuten Jokin Lizeagak, eta askotan egin ohi duenez, proba irabazi zuen. 20,5 kilometroko distantzian (1300 desnibela, 2600 metatuta), 1:54:59 denbora egin zuen. Bigarren sailkatua Alvaro Garcia izan zen (1:59:22).



Jokin Lizeaga. CANOFOTOSPORTS.COM



AIURRI

Bidasoa txapeldun, Urnieta txapeldun-orde

ESKUBALOIA Finalaren joanean, lehen partidaren alegia, 24-18 Urnietan irabazi eta gero, gorritxoak itxaropentsu abiatu ziren Irun aldera. Aurkaria zaila zen, ligan ondo ikusi zuten, baina ez zeuden erraz etsitzeko prest. Joanean lorturiko

abantaila, zoritxarrez, ez zen nahikoa izan. Itzuliko partida 22-11 galdu eta Foru Aldundia txapelketa Bidasoarentzat izan zen. Urnieta Kirol Elkartek kadete mailako nesken lana zoriondu nahi du, denboraldi bikaina burutzen ari baitira.

KARTELDEGIA: SASKIBALOIA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Oiarzun-Ganbara **59-39**

SAILKAPENA

1 Zarautz **40 puntu**
10 Bosteko Irauli B **28 puntu**
11 Ganbara **28 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15 Ganbara-STL Azkune / Lar, 24

KADETE MAILA

EMAITZA

Ganbara-Goierri **57-42**

SAILKAPENA

1 Ama Guadalupekoa **4 puntu**
2 Ganbara **4 puntu**
3 Hernani **4 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Irun-Ganbara / Lar, 24

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Idiazabal-Euskalduna **6-6**

SAILKAPENA

1 Hirukide **46 puntu**
5 Euskalduna **35 puntu**
6 Idiazabal **35 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Euskalduna-Oiarzun / Lar, 24

ANDOAINGO TXAPELKETA

A TALDEA

Ekhia-Akerbeltz **2-2**
 Keler-H. Extremeño **3-1**
 Dad Kutxa-Lanbroa **5-1**

B TALDEA

Ekaitz-Gorostidi **2-4**
 Ganbara-Powerade **10-7**
 Pausoka-Academia GF **5-1**
 Olajauna-Irunberri **3-6**

Judokak fin ibili dira Gipuzkoako txapelketan

JUDO Pasa den larunbaten ospatu zen Urnietan Gipuzkoako judo txapelketa, infantil eta kadete mailan. 9 urnietar eta 5 andoaindar lehiatu ziren txapelketan, eta domina ugari eskuratu zituzten



Urnietako Adarra judo taldeko infantil eta kadete mailako ikasleak, lortutako dominak jantzita. AIURRI

Erredakzioa URNIETA / ANDOAIN Lepoan domina eta ahoan irribarrea. Horixe txapelketako argazkia. Andoaingo taldean kadete mailan Iraitz Aldasorok urrezko domina lortu zuen; infantiletan Sara Villalbak urrezkoa eta Ekaitz Goñik zilarra. Urnietarren taldean kadete mailan zilarrezko domina lortu zuen Amets Karrerak, eta brontzezkoa Oier Duranek eta Joseba Gomezek. Infantiletan urrezko domina Alaitz Karrerak, eta brontzezkoa, Julen Pagolak eta Yerai Martinezek.



Andoaingo infantil eta kadete mailako judo ikasleak. IÑAKI SAN MARTIN

Eskualdeko pala topaketa

Larunbat honetan, Buruntzaldeko kirol zerbitzuek sustatuta eta Andoaingo Gazteleku pilota elkarteak antolatuta, eskualdeko emakumeen pala topaketa ospatuko dute. Bertan Lasarte-Oria, Urnietan, Andoain eta Usurbilgo pilotariak hartuko dute parte. Hitzordua, arratsaldeko 17:45etatik aurrera izango da, Arrate pilotalekuan.



GAZTELEKU

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Mundarro-Euskalduna	0-2
Ostadar-Urnieta	1-0

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30	Euskalduna-Allerru / Lar, 24
16:00	Urnietan-Martutene / Lar, 24

ERREGIONAL MAILA, MUTILAK

EMAITZA	
Euskalduna-Trintxerpe	2-3

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA	
Lagun Onak-Urnieta	4-3

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Urnietan-Intxaurdi / Lar, 24
-------	------------------------------

KOPA, NESKAK

EMAITZA	
Oiartzun-Euskalduna	3-1

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30	Euskalduna-Allerru / Lar, 24
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

EMAITZAK, IGOERAKO LIGAXKA	
Urnietan A-Allerru A	0-2
Euskalduna A-Orioko	3-1

EMAITZAK, KOPA

Lazkao-Euskalduna B	1-5
Urnietan B-Billabona	3-4

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:15	Euskalduna B-Idiazabal / Lar, 24
-------	----------------------------------

KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZA, OHOREZKO MAILA	
Hondarribia-Euskalduna	1-4

EMAITZAK, KOPA

Kostkas B-Urnieta	2-1
Euskalduna-Intxurre	7-1

ASTEBURUKO PARTIDAK 4-7MUL.

10:00	Urnietan-Martutene B / Lar, 24
-------	--------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Urnietan-Orioko	1-2

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

EMAITZAK	
Leizaran-Soraluce	23-30
Ormaiztegi-Urnieta	33-32

ASTEBURUKO PARTIDAK

20:30	Urnietan-Leizaran / Ostirala, 23
-------	----------------------------------

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZAK 1-2 MULTZOAK	
San Adrian-Urnieta	24-27
BM Romo-Leizaran	20-30

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00	Urnietan-Urdaibai / Ig, 25
16:00	Leizaran-Zepelin / Lar, 24

JUBENIL MAILA, MUTILAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZAK	
Ordizia Orkii-Leizaran	24-25

ASTEBURUKO PARTIDAK

--:--	Urnietan-Hettich ZKE/
--:--	Leizaran-Elgoibar / Lar,

JUBENIL MAILA, NESKAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZA	
Leizaran-Ereintza	20-26

KADETE MAILA, MUTILAK

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK	
Urnietan-Aloña Mendi	26-20
Ordizia Orkii-Leizaran	27-32
Usurbil-Leizaran Horia	21-17

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:00	Leizaran Horia-Egia 3 / Lar, 24
-------	---------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Urola-Leizaran Horia	21-19

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK	
Bidasoa Irun A-Urnieta	22-11
Leizaran Urdina-Aiala B	23-21

Kirol egokitua gertutik

Presentacion de Maria ikastetxe LHko 5. eta 6. mailako ikasleek ez ohiko kirol jarduera landu zuten joan zen ostiralean. Salto Bera-Bera taldeko kideen eskutik kirol egokitua zer den ikusteaz gain, haiekin batera kirolean jarduteko aukera izan zuten. Esperientzia aberasgarria izan zen denentzat; ikasleentzat eta Bera-Berakoentzat.



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 22

URNIETA Izen ematea

Irrisarri Land abentura parkera irteera, Ilargi Berdea kirol gunera irteera, CupCake txapelketa edota eskulan tailerra. Izena emateko epea martxoaren 22ra bitarte zabalik.

Gaztelekua 17:00-19:30.

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko batzaraldia.

Udaletxea, 19:00.

URNIETA Plenoa

Udalaren osoko batzaraldia.

Udaletxea, 19:00.

OSTIRALA 23

URNIETA Zuhaitzaren eguna

Ikasleen parte hartzearekin.

Erratzu, 11:00.

URNIETA Diaporamak

"Riding South Asia", Alain Moto.

Sarobe, 11:30. Dohainik.

"Etiopia", Maddalen Kortajarena.

Sarobe, 18:30. Dohainik.

ANDOAIN Outlet kalean

Salkinen eskutik, hainbat dendatan.

Egun osoan zehar.

LARUNBATA 24

ANDOAIN Bilera

2018an Beti Abeslari abesbatza sortu zela ospatuko da. Parte-hartzaileei bilerrarako deialdia egin zaie.

Olagain, entsegu gela. 11:30.

ANDOAIN Antzerkia

"Esto no me lo esperaba" antzezlan, Zanguango Teatroa. Sarrera: 12 euro.

Bastero, 21:30.

IGANDEA 25

ANDOAIN Bertso saioa

Sahara herrialdeen aldeko bertso saioa: Unai Agirre, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze, Unai Muñoa eta Oihana Iguaran.

Gai jartzailea: Ion Beloki.

Bastero, 12:00. 6 euro.



ARABA.EUS

ESKUALDEA Udaleku eta gazte oporraldietan izena emateko aukera

Udako oporraldian leku desberdinetara joateko eta jarduera desberdinak burutzeko aukera izango dute 7-13 edo 14-17 urte bitarteko gaztetxoek, Foru Aldundiaren eskutik. Informazioa Andoaingo Gazte informazio bulegoan.

Izena emateko azken eguna: Martxoak 26, astelehena.

ASTEARTEA 27

ANDOAIN Lehiaketa

Santa Krutz jaietako kartel lehiaketa, parte hartzeko azken eguna. A4 edo A5 tamainan aurkez daiteke. Sari bakarra izango da, 200 eurokoa.

Ernaitza liburudenda.

ASTEARTEA 3

URNIETA Tailerrak

Trakamatraka musika tailerra, 2010-2012 artean jaiotakoentzat.

Lekaio, 11:00-12:30.

Zientzia esperimenduak, 2007-2009 artean jaiotakoentzat.

Lekaio, 11:00-13:00.

ASTEAZKENA 4

URNIETA Tailerra

Magia tailerra, Hodei magoaren eskutik, 2007-2012an jaiotakoentzat.

Lekaio, 11:00-13:00.

ANDOAIN Tailerra

Sukaldaritza tailerra.

Gazte Lokala, 17:00.

OSTEGUNA 5

URNIETA Tailerra

Sukaldaritza tailerra 2007-2012an jaiotakoentzat.

Lekaio, 11:00-13:00.

ANDOAIN Irteera

Irrisarri Land abentura parkera.

Gazte Lokala, 10:00. 15 euro.

OSTIRALA 6

URNIETA Tailerrak

Zirko tailerra, denentzat irekia.

San Juan plaza. 16:30-18:30.

Lappa musika taldekoekin tailer praktikoa.

Lekaio.

ANDOAIN Jolasak

Jolas ezberdinen txapelketa.

Gazte Lokala, 17:00.

LARUNBATA 7

ANDOAIN Irteera

Zinemara irteera.

Gazte Lokala. 8 euro.

ZINEMA

ANDOAIN

Igandea, 25:

19:30.

BASTERO

Astelehena, 26:

19:30; 22:00.

La forma del agua

Oscar sarietan

hainbat sari lortu

zuen filma.

Larunbata, 24:

19:30; 22:00.

Harpetarra

Larunbata, 24:

17:00.

Euskaraz

Igandea, 25:

17:00.

50 Sombras

liberadas

Ostirala, 30: 19:30.

Larunbata, 31:

22:00.

Igandea, 1: 19:30.

Apirilak 2, 3: 19:30.

Jumanji

Lar, 31: 19:30.

Apirilak 1, 2: 17:00.

URNIETA

SAROBE

Diaporamak

Ostirala 23:

11:30 Alain Moto

(Riding South...).

18:30 Madalen

Kortajarena

(Etiopia).

SINOPSIK



Harpetarra

Zuz.: Nick Park. **Herr.:** Erresuma Batua (2018). **Iraupena:** 89 minutu. **Hizkuntza:** Euskara / gaztelania.

Futbola asmatu zuten aroa

Dug harpetarra eta Urde basurdea Harri Aroko tribu batean bizi dira. Lord Nooth

maltzurra Brontze Aroa ezarri nahian dabil. Futbolak paper garrantzitsua jokatu du.

La forma del agua

Zuz.: Guillermo del Toro. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Aktoreak:** Sally Hawkins, Doug Jones, Nick Searcy... **Iraupena:** 119 minutu.

Anfibio itxura duen gizonezkoa

Segurtasun handiko laborategi batean muturreko bi munduen elkarketa gertatzen da, Gerra Hotzearen garaian. Elisa, laborategiko garbitzailearen bizitza erabat aldatuko da

gizon itxurako anfibioa topatzen duenean. Pixkanaka ezagutzen joan ostean, Elisa berarekin maiteminduko da, eta plan bat jarriko du abian izaki misteriozua salbatzeko.

Pentsioak udaletxetan hizpide

Ez da ohikoena izaten, baina ostegun honetan bi udalerrietan batzaraldiak burutuko dira. Bietan ere ordu berean, arratsaldeko 19:00etan hasita. Gizarte mailan erantzun handia piztu duen pentsioen gaiak hizpide izango dira bi udalerrietan.

Andoaingo Udal batzaraldian Duintasuna elkarteak mozioa aurkeztu du, pentsio duinen

aldekoa. Urnietakoan, berriz, adierazpen instituzionala irakurri eta onartuko dute.

Joan zen larunbatean, esaterako, Donostiako manifestazioan milaka herritarrek bat egin zuten pentsiodunekin. Eta Andoainen, astez aste, ehunka herritar biltzen dira Goikoplazan. Pentsiodunak ez daude etsitzeko prest.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Andoni Irazu
Martxoaren 30ean 14 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handiak etxekoan partetik.



ANDOAIN Nerea Irazu
Apirilaren 7an 12 urte beteko ditu. Zorionak eta ondo ospatu. Muxuak, etxeokak.



ANDOAIN Amona Carmen
Martxoaren 21ean laurogei urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



ANDOAIN Asier eta Unai
Martxoaren 26an 13 urte. Besarkada handi bat eta muxu asko biontzat. Amona eta aitona.

TELEFONO ZENBAKIAK

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Bastero: 943 303 540.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 24 eta igandea 25
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415. Andoain.

Larunbata 31 eta igandea 1*
ARZALLUS: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.
*Aste Santuan:
Martxoak 29-Apirilak 2.

GAUEZ ASTEBURUAN

CASTILLA. 943 552 941. Hernani.

URNIETA

Larunbata 24 eta igandea 25
GOMEZ: Nagusia, 14.
943 554 892. Hernani.

Larunbata 31 eta igandea 1*
GOMEZ: Nagusia, 14.
943 554 892. Hernani.
*Aste Santuan:
Martxoak 29-Apirilak 2.

GAUEZ ASTEBURUAN

CASTILLA. 943 552 941. Hernani.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituz:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, bidal ezazu argazkia posta elektronikoz: diseinua@aiurri.eus

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 16 35 37

ESKELA



Martxeli Gorriti Perurena

Serora-ohia; Egape ikastolako langile-ohia. *Urnietar Prestua (2008)*

Urnietan hil da, martxoaren 14an, 90 urte zituela



Hamaika lan eta izerdi bota izanaren lekuko, Urnietako herri zintzoak ez zaitu inoiz ahaztuko; aldian behin bai, Martxeli

zure izena entzun orduko, *hura bai urnietar prestua!* zaitugu hasperenduko, bizitzeko zure poza hura maitasunez gogoratuko.

M LARRAMENDI

Urnietan, 2018, martxoak 19.
Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra (Manuel Larramendi Kultur Bazkunea)



ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

ZOKKETA

SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

BERTSO SAIORAKO 2 SARRERA

Aiurriko harpidedunen artean, Sahararen aldeko bertso saiorako bi sarrera zokketatu ditu. Parte hartzaile guztien artean zokketa egin eta gero, hauxe da irabazlea:

Ane Amondarain.

(Andoain)

Zorionak!



SAHARAAREN

ALDEKO

BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean
2018 / 3 / 25 eguerdiko 12:00etan

Unai Agirre Beñat Gaztelumendi
Sustrai Colina Unai Muñoa
Aitor Mendiluze Oihana Iguaran

Gai jartzailea: Ion Beloki

Sarrerak salgai: Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats

6.00€

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK

